



GURASO ELKARTEKO ASANBLADAREN AKTA

2023/2024 IKASTURTEA

EGUNA: 2023ko azaroak 22

ORDUA: 1.go deialdia 18:00etan
2. deialdia 18:15etan, 19:15ak arte)

BILERA MODUA: Ikastolan 116. gelan

PARTAIDEAK:

FAMILIA	FAMILIA
1. Acosta Artatxo	13. Iriarte Azcarate
2. Amezaga Zabala	14. Izgara Latxiondo
3. Arranz Vitores	15. Landeta Laiz
4. Azkargorta Clavell	16. Martinez Fernandez
5. Combarro Aguayo	17. Navarro Pérez-Malumbres
6. Esparta Fernández	18. Perea Arrieta
7. Etxebarria Gogeochea	19. Perez Gonzalez
8. García-Alfageme Zameza	20. Prieto Camara
9. Garmendia Pérez de Palomar	21. Ramirez Gandul
10. Gonzalez Vidorreta	22. Sanchez Gorgas
11. Hernandez Aguirre	23. Uribe-Etxebarria Maoño
12. Iñiguez de Onsoño Mardaras	

GAI ORDENA:

1. AURREKO BATZAR OROKORRAREN AKTAREN ONARPENA

Amaia Agirrek aurreko batzar orokorraren akta irakurtzen du. Aho batez onartzen da.

2. JUNTAKO KUDEAKETA TXOSTENA

- **ESKOLAZ KANPOKO EKINTZAK:** Leire Zabalak azalpena egiten du. Iazko balorazioa ona da, aipagari bezala ekintza eta espazio batzuk berreskuratu dira, eta bestetik euskara bultzatzeko proiektuan talde batzuk parte hartu dute. Datorren ikasturteari begira erroken artean, besteak beste, asistentzia kontrola hobetu eta ekintzetan izen ematea irailetik ekainera pasa. Ez dago zalantzarik ezta galderarik ere.

- **KOMUNIKAZIO&PARTE-HARTZEA:**

Mikeldi Uribe-Etxebarriak hitza hartzen du, Iazko balorazioa ona da, Komunikazio eta Parte-Hartze taldeak uztartu dira, GEak bidalitako laguntza eskariaren ondorioz talde berria osatu da eta Inika tresna garrantzitsua bilakatu da. Datorren urteko erronkei begira, besteak beste azaltzen dira lan talde dinamikak elikatu, web gunea eguneratu eta Nextcloud plataforma martxan jarri.

Ez dago zalantzarik ezta galderarik ere.

- **KULTURA:**

Eider Fernandezek azalpena egiten du, Iazko balorazioa positiboa da, lotería salmenta handitu da, aste kulturalaren 7. edizioa antolatu da 30 ekintzekin eta mendi martxa aurten aurreratu da eta iritzi positiboa izan da. Errokei begira, besteak beste, euskararen erabilera sustatu, lotería salmenta handitu, mendi-martxa apirilera edo maiatzera aurreratu.

Ez da egon zalantzarik ezta galderarik ere.

- **JANTOKIA&HAURTZAINDEGIA:**

Leire Gandulek hartzen du hitza. GEk bidalitako laguntza eskaeraren ondorioz azpi-batzordeak eratu dira. Zuzendaritzarekin batera jantoki-batzordea sortzekotan da. Jantoki zerbitzuaren kalitateak nabarmen egin du behera aspaldi honetan eta jantokiko obraren egoeraren berri ere ematen du. Azkenik, haurtzaindegia dagokionez langileen eta GASCAREN arten egon den iskanbila aipatzen du. Datorren urteari begira Jantokiko jarraipen Batzordea bultzatuko da eta birmoldaketa kontrolatu erronka nagusi bezala.

Ez da egon zalantzarik ezta galderarik ere.

- **DIRUZAINA (KONTUAK):**

Kepa Perezek honako azalpena ematen du:

- Jende berria sartu da diruzaintza atalean.
- Iazko diru-sarrerak eta gastuak antzerakoak izan dira.
- GEak, ikasturte honetan, bakarrik ordainduko du bere bazkideen eskola aseguru.

Ez dago egon zalantzarik ezta galderarik ere.

3. 2022/2023 IKASTURTEKO KONTUEN AURKEZPENA ETA ONARPENA:

Aho batez onartutzat ematen dira.

4. 2023/2024 IKASTURTERAKO AURREKONTUEN AURKEZPENA ETA ONARPENA:

Aho batez onartutzat ematen dira.

5. 2024/2025 IKASTURTERAKO GURASO ELKARTEKO KUOTA PROPOSAMENAREN AURKEZPENA ETA ONARPENA:

GEko kuotek gora egingo dute, hauexek izango dira datorren ikasturteko kuotak:

- Ume bategatik, 50 €
- Bi umerengatik, 80 €.
- Hiru umerengatik, 110 €.

Aho batez onartutzat ematen da.

6. GURASO ELKARTEKO JUNTAKO ORGANIGRAMA AURKEZPENA:

Organigraman ondorengo aldaketak egongo dira:

- Kirol Batzordean, Egoitz Izkara.
- Diruzaintzan, Nagore Rodriguez.
- Idazkaritzan, Mikel Iñiguez de Onsoño.
- Jantokian, Janire Perez-Malumbres,
- Kulturaren, Eider Fernandez.

7. GALDE-ESKAERAK:

Ez da egon zalantzarik, ezta galderarik ere.